

ZARAUZKO BANDERA. Hondarribiak egin zuen denborarik onena, lan ederra egin ondoren

Estropada makala egin eta asko sufrituta irabazi du Oriok Zarautzen

Oriotarrak seigarren izan ziren atzo, eta Koxtape bandera eskuratzeko zorian izan zen

Ramon Basaldua | **ZARAUTZ**

Inor gutxi espero zena gertatu zen atzo Zarauzko banderaren bigarren jardunaldian. Aurreko egunean Oriok bigarrenari 17 segundo kendu ostean lehia erabakita zegoela zirudien arren, atzokoan oriotarrek estropada makala egin eta bandera galtzeko zorian izan ziren. Hondarribia izan zen atzoko protagonista nagusia, estropada irabazteaz gain, Oriori 27 segundoko aldea kendu ziolako. Koxtape lau segundoren faltan geratu zen bandera irabazteko.

Hondarribiak sekulako denbora egin zuen bigarren txandan. Mattin Olasagastiren gizonak lan izugarria egin eta denbora bikaina egin zuten, 20.02 hain zuten ere. Hala ere, aurreko egunean Oriorekiko 35 segundo galduta, *Ama Guadalupekoak* ez zuen zeregin handirik bandera eskuratzeko borrokan.

Urdaibaik ez zuen ontzat eman azken txandako emaitza

Hirugarren txandan haizeak gora egin eta euria hasi zen. Parekotasuna izan zen nagusi lehen erdian Urdaibai, Koxtape eta Orioren artean. Hirugarren luzean Koxtapek atzean utzi zituen Urdaibai eta Orio eta bi aurkariekiko sei segundoko al-



PABLO S. QUIZA
Orioko arraunlariak, atzo, Zarautzen, ikurrinarekin garaipena ospatzen.

dearekin ekin zion azken luzeari.

Orio atzean ikusita —euren laugarren luzea negargarria izan zen— Koxtape banderaren bila joan zen. Borroka horretan Joseba Arbonak, *Errekako* patroiak, lehen kalerantz, Urdaibairen kalerantz, eraman zuen trainerua olatuen indarraz

baliazteko. Urdaibai, atzean geratu beharrean Koxtape harrapatzen zihoan eta Asier Arego, Urdaibaiko patroiak besoa jaso zuen Koxtaperen jarrera salatzen.

Azken txanpan bi ontziak elkar jotzeko zorian izan ziren eta azkenean Koxtapek segundoko eta 22 ehuneko kendu ziz-

kion Urdaibairi. Azken txanpa horretan gertaturikoa ikusita batek baino gehiagok gogoratu zuen duela bi urte Orio eta Koxtaperen artean Zarautzen gertatu zena. Orduan, epaileek kanporatu egin zuten Orio. Atzo, oster, itsasoko epaileak esan zuenez Koxtapek ez zion oztopo egin Urdaibairi. Urdaibaiko Patxi Bilbao entrenatzailea ez zen iritzi berekoa. «Epaile horren jarrera salagarria da. Koxtape garbi sartu da gure kalean eta epaileek ez dute neuririk hartu. Horien begietan guztiok ez gara berdinak».

Gainerantz, txalotzekoa da Isuntzak bosgarren amaitu izana. Lekeitiarrak denboraldian izan ez duten erregulartasuna eskuratzeko ari dira. Santurtzik amore eman zuen eta Zumaia-Getariak seigarren postuan bukatu zuen.

AZKEN SAILKAPENA	
ONTZIA	DENBORA
1. Orio	40.26.08
2. Koxtape	40.30.00
3. Hondarribia	40.33.07
4. Urdaibai	40.39.31
5. Isuntza	40.47.57
6. Zumaia-Getaria	40.52.05
7. Santurtzi	40.56.18
8. San Pedro	41.01.28
9. Donibaneko	41.16.35
10. Trintxerpe	41.20.33
11. Astillero	41.47.44
12. Donosti-Arraun	42.31.50

CASTROKO BANDERA

Ondarroa erraz nagusitu da Castron, Pedreña eta Elantxobe-Arkoten aurretik

Ramon Basaldua | **BILBO**

Denboraldiko hirugarren garaipena erdietsi zuen atzo Ondarroako traine-ruak Castro Urdialesko (Kantabria) banderaren. Aurretik faborito nagusia Castro bazen ere *Antiguako Ama* nagusitasun osoz gailendu zitzaizen Pedreña, Elantxobe-Arkote eta etxeko ontziari. Ondarroak 11 segundo kendu zitzaion bigarren sailkatu zen Pedreñari.

Mikel Orbañanosek zuzentzen duen koadrila gorantz ari da azken estropadetan eta ezin hobeto iritsiko da denboraldiko azken txanpara. Ondarroak indar handiz ekin zion atzoko estropadari eta denbora onena egin zuen lehen zibogari Pedreñari segundoko bat kenduta. Castro eta Elantxobe-Arkote atzean geratu ziren lehen luzean.

Lan erditan Ondarroak bost segundora handitu zuen Pedreñarekiko aldea eta hirugarren zibogari bien arteko aldea zortzi segundokoa zen. Beste hiru segundo lortu zituen *Antiguako Amak* eta azkenean aldea 11 segundokoa izan zen.

Azpitarratzekoa da Iñigo Larrinaga, hama-bost urteko patroiak zuzendu zuela *Antiguako Ama* atzo Castron. Portugalen ere berak zuzendu zuen trainerua. Honako mutilak aritu ziren Ondarroako tostetan: Mikel Orbañanos, Josu Lete, Iñaki Oliden, Jokin Arrasate, J. A. Zaton, Jon Lete, Mikel Iriondo, Juan I. Akarregi, Aitor Larrañaga, Mikel Rocha, Gotzon San Miguel, Gotzn Arrasate eta Joseba Lete.

CASTROKO BANDERA

ONTZIA	DENBORA
1. Ondarroa	20.21.87
2. Pedreña	20.32.59
3. Elantxobe-Arkote	20.57.03
4. Zierbena	21.00.89
5. Ur Joko	21.03.36
6. Algorta-Mundaka	21.10.99
7. Santander B	21.17.50
8. Mutriku	21.33.78
9. Portugalete	21.38.75
10. Kaiku	22.08.20
11. Pontejos	22.20.08
12. Castro	kanporatua

M.A. LIZARRALDE, 'ALTXERRI' ORIOKO ARRAUNLARI ETA ENTRENATZAILEA

«Hasi berriak bagina bezala harrapatu gaitu estropadak, eta lotsagarri ibili gara»

R. B. | **ZARAUTZ**

Altxerri ez zegoen pozik atzoko estropada amaitu ostean, bandera Oriora joan arren.

■ Garbi dago espero baino gehiago sufritu duzuela Zarauzko bandera irabazteko

Bandera Oriora eraman dugu baina gure aldetik lotsagarri ibili gara. Ez dugu arranean egin ez dugu asmatu enfilazioetan eta neuk ere es dut asmatu egin ditudan aldaketetan. Dena gaizki atera zaigu baina hala ta guztiz ere azkenean bandera Oriora ekarri dugu.

■ Laugarren kaletik joan izanak eraginik izan al du



BASALDUA

Oriok egin duen lan kaskar horretan?

Ez dut uste. Akaso laugarren kalea barrukoak baino zertxo-

bait txarragoa izango zen baina horixe ez da izan gura arazo nagusia. Kontua da guk gaur ez dugula gure maila eman. Seguru nago besteek ez dutela gora egin. Kontua da guk ibili behar duguna baino gutxienez 20 segundo atzerago ibili garela. Eguneko gauza on bakarra bandera irabazi izana.

■ Lehenengo jardunaldian 17 segundoko aldea lortuta gehiegi lasaitu ete da Orio?

Ez, Orio ez da gehiegi lasaitu. Kontua da dena gaizki atera zaigula. Berriak izango bagina bezala harrapatu gaitu estropadak eta ea hemendik aurrera gertatutakoa aztertu eta ikasi egiten dugun.